


LAUKIZ ETA MARURI-JATABE



UDAL ELKARTEAREN EGUNGO
EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

AURKIBIDEA**ONARRIZKO DATUAK 3**

Kokapen geografikoa eta biztanleen kopurua
 Biztanleriaren egitura, adinaren arabera
 Biztanleria, jatorriaren arabera
 Biztanleriaren bilakaera, udalerriz udalerrri 1981-1996
 Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera
 Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera

EUSKARA ONDORENGOETARATZEA..... 7**Familia bidezko jarraipena**

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia
 Hizkuntza bilakaeraren tipologia, adinaren arabera
 Etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia
 Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera

Irakaskuntza

Irakaskuntza ez unibertsitarioaren ikastetxeak; sarea eta ikasleen kopurua, ereduka
 Hizkuntza Normalkuntzako programak
 Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera (1983-84/2001-02)
 Haur Hezkuntzaren bilakaera (1983-84/2001-02)
 Irakaskuntza ez unibertsitarioa 2001-02, irakasmailaren arabera

Euskalduntze-alfabetatzea

Euskaltegiak: sare-mota, ikasle kopurua
 Euskaltegiako matrikulazioaren eta bermatrikulazioaren bilakaera

EUSKARAREN ERABILERA..... 16**Administrazioa**

Udalbatzaren osa era: alderdi politikoen ordezkariak
 Euskara Zerbitzua
 Udalen erabilera-plana
 Derrigortasun indizea eta hizkuntza-eskakizunen betetze-maila

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

Udalaren web gune ofizialaren hizkuntza-egoera

Lan mundua

Biztanleria, lan sektorearen arabera
 Erabilera-plana duten udaleko enpresak


EUSKARAREN ELIKADURA..... 20**Komunikabideak****Euskara-aurrekontuak (1999ko datuak)..... 20****ONDORIOAK: indarguneak eta ahuleziak..... 21****ONDORIO NAGUSIAK 22****ERANSKINA: GLOSARIOA..... 28**

OINARRIZKO DATUAK

Udal Elkarteak osatzen duten udalerriak bi dira: Laukiz eta Maruri-Jatabe. Udal Elkarte honetako herriak Plentzia-Mungia eskualdean kokatuta daude. Plentzia-Mungia eskualdea 15 udalerrik¹ osatzen dute. 1996ko datuen arabera, Udal Elkarte honetan 1.517 lagun bizi dira, Plentzia-Mungia eskualdeko %3,81. Laukiz da biztanle gehien dituen udalerria (937). Maruri-Jatabek, berriz, 580 biztanle ditu. Azken urteotako (1981-1996) bilakaerari dagokionez, Udal Elkarteak biztanleen %2,4 galdu ditu. Galera hau Laukizen bakarrik gertatu da, herri honek biztanleen %10,8 galdu baitu. Maruri-Jatabe, berriz, hazi egin da (%15,1).

URIBE BUTROE ESKUALDEA: MUNGIA, BAKIO, FRUIZ, GAMIZ-FIKA, ARRIETA, GATIKA, MEÑAKA, MARURI-JATABE ETA LAUKIZ

URIBE KOSTA ESKUALDEA: GORLIZ, PLENTZIA, SOPELANA, LEMOIZ, BARRIKA, URDULIZ, BERANGO



Plentzia-Mungia
Plentzia-Mungia



Biztanle-kopurua: 1.517
Eskualdea: Plentzia-Mungia
Lurraldea: Bizkaia

2003ko DATUAK

LAUKIZ: 1.000 BIZTANLE INGURU
MARURI-JATABE: 790 BIZTANLE

¹ Arrieta, Bakio, Barrika, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Górliz, Laukiz, Lemoiz, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia, Plentzia, Sopelana eta Urduliz.

Biztanleriaren egitura, adinaren arabera (1996)

Udal Elkarteak	Guztira	Biztanleen dentsitatea	0-19 urte		20-64 urte		≥65 urte	
			Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Bizkaia	1140026	514,2	232.149	20,36	729.087	63,95	178.790	15,68
Plentzia-Mungia	39.813	188,7	8.948	22,48	25.403	63,81	5.462	13,72
Laukiz	937	115,7	170	18,14	635	67,77	132	14,09
Maruri-Jatabe	580	36,7	107	18,45	366	63,10	107	18,45
Udal Elkarteak	1.517		277	18,26	1.001	65,99	239	15,75

Biztanleria, jatorriaren arabera (1996)

UDAL ELKARTEA	Guztira	Sedentarioak	Barne-migratzaileak	Etorkinak
Bizkaia	1.140.026	47,71	28,93	23,36
Plentzia-Mungia	39.813	40,2	51,4	8,4
Laukiz	937	34,15	61,26	4,59
Maruri-Jatabe	580	52,93	45,52	1,55
Udal Elkarteak	1.517	41,33	55,24	3,43


Biztanleriaren bilakaera, udalerriz udalerriz (1981-1996)

Udal Elkarteak	1981	1996	Hazkundera	Hazkundera %
EAE	2.141.809	2.098.055	43.754	-2
Bizkaia	1.189.278	1.140.026	49.252	-4,1
Plentzia-Mungia	33.544	39.813	6.269	18,7
Laukiz	1.050	937	-113	-10,8
Maruri-Jatabe	504	580	76	15,1
Udal Elkarteak	1.554	1.517	-37	-2,4

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera

1996ko datuen arabera, Udal Elkarte honetako ia bi heren (%63,47) euskaldunak dira. Elebidun hartzaileak %11,22 dira eta erdaldun elebakarrak %25,31. Desberdintasun nabariak daude bi herrien artean: Maruri-Jataben biztanleen hiru laurdenak (%77,13) euskaldunak dira eta Laukizen, berriz, euskaldunen portzentajea nahiko txikiagoa da (%55,21).

Bilakaerari dagokionez, 1981etik 1996ra Udal Elkartean euskaldunen portzentajean ez da aldaketa nabaririk eman. 1981ean, euskaldunak %63,58 ziren eta 15 urte beranduago aipatutako %63,47. Elebidun hartzaileen portzentajea, berriz, 2,3 puntu igo da. Maruri-Jatabe eta Laukizen joera desberdina izan da bilakaera kontutan hartuta. Laukizen euskaldunen portzentajeak gora egin du hamabost urte hauetan (ia hiru puntu) eta Maruri-Jataben, berriz, behera egin du (9,3 puntu).




Hizkuntza-gaitasuna, udalerrien arabera (1996)

UDALERRIAK	Biztanleria	Euskaldunak %	Elebidun hartzaileak %	Erdaldun elebakarrak %
Laukiz	911	55,21	12,95	31,83
Maruri-Jatabe	551	77,13	8,35	14,52
Udal Elkarte	1.462	63,47	11,22	25,31


Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera

Euskaldunen portzentajerik handienak 70 urtetik gorakoen artean daude (%85etik gora). 19 urtetik beherakoen artean euskaldunen portzentajeak ere handiak dira (%75tik gora). Elebidun hartzaileen eta erdaldun elebakarren portzentaje handienak, berriz, 20 eta 65 urte dituztenen tartean daude. Nabarmentzekoa da Maruri-Jatabeko 75 urtetik gorako biztanle guztiak (%100) euskaldunak izatea.

Hizkuntza-gaitasuna 1996, adinaren arabera Laukiz, Maruri-Jatabe Competencia lingüística 1996, según la edad



Euskaldunen bilakaera 1981-1996, adinaren arabera Laukiz, Maruri-Jatabe Evolución de los euskaldunes 1981-1996, según la edad




EUSKARA ONDORENGOETARATZEA

FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia kontutan hartzen badugu, multzo nagusia euskaldun zaharrak dira, biztanleriaren erdia baino pixka bat gehiago (%52,39). Euskaldun zaharren ostean, hurrengo multzoa erdaldun zaharrek osatzen dute (%24,83).



Hizkuntza-bilakaeraren tipologia, herriz-herri (1996)

	Biztanleria	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldun berriak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
Laukiz	911	43,80	4,28	7,14	11,53	1,43	0,44	31,39
Maruri-Jatabe	551	66,61	3,81	6,72	6,17	2,18	0,54	13,97
Udal Elkarteak	1.462	52,39	4,1	6,98	9,51	1,71	0,48	24,82


Udalerrien arteko portzentajeak alderatuz, bi herrietan euskaldun zaharrak dira nagusi. Hala ere, Maruri-Jataben biztanleriaren bi herenak dira euskaldun zaharrak (%66,61) eta Laukizen, berriz, erdia inguru (%52,39).

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia, adinaren arabera

Euskaldun zaharrak nagusi dira adin guztietan, 45-49 adin-tartean ezik Adin-tarte honetan parekatuta daude erdaldun zaharrek (biztanleriaren %39,33 multzo bakoitza). Euskaldun berrien portzentajeak garrantzitsuak dira 19 urte azpiko gazteen artean (%15tik gora)

Udal Elkarteak osatzen duten udalerrien arteko datuak alderatuz gero, nabarmentzekoa da Laukizen zenbait adin-tartetan erdaldun zaharrak nagusi izatea (45 eta 60 urte tartean).

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia 1996, adinaren arabera
Laukiz, Maruri-Jatabe
Tipología de movilidad lingüística 1996, según la edad




Hizkuntza-bilakaera (>=5 urte), adinaren arabera (1996)								
	Biztanleria	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldun berriak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
Udal Elkartea	1.462	52,39	4,10	6,98	9,51	1,71	0,48	24,83
5-9	55	54,55	9,09	18,18	0,00	1,82	0,00	16,36
10-14	63	47,62	4,76	17,46	15,87	1,59	0,00	12,70
15-19	112	52,68	7,14	15,18	9,82	0,00	0,00	15,18
20-24	163	41,10	7,98	7,36	16,56	1,84	0,00	25,15
25-29	138	37,68	7,97	5,07	15,94	3,62	1,45	28,26
30-34	122	50,82	3,28	5,74	11,48	0,82	0,82	27,05
35-39	100	56,00	2,00	8,00	9,00	1,00	1,00	23,00
40-44	104	46,15	0,96	3,85	10,58	1,92	0,00	36,54
45-49	89	39,33	4,49	4,49	8,99	2,25	1,12	39,33
50-54	89	48,31	0,00	1,12	10,11	2,25	1,12	37,08
55-59	98	51,02	4,08	6,12	6,12	4,08	0,00	28,57
60-64	97	55,67	3,09	6,19	5,15	1,03	1,03	27,84
65-69	90	72,22	0,00	1,11	4,44	1,11	0,00	21,11
70-74	57	78,95	0,00	7,02	1,75	0,00	0,00	12,28
75-79	42	88,10	0,00	2,38	2,38	2,38	0,00	4,76
80-84	25	80,00	8,00	4,00	0,00	0,00	0,00	8,00
>=85	18	72,22	0,00	11,11	5,56	0,00	0,00	11,11

Etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia

Etxean euskara gehien erabiltzen dutenak euskaldun zaharrak dira. Izan ere, %85,1k euskaraz hitz egiten dute nagusiki etxean eta %11,5k euskaraz eta gaztelaniaz. Jatorrizko elebidunen artean, gehienek, hamar lagunetik seik (%63,4) gaztelaniarekin batera erabiltzen dute. Euskaldun berrien artean, berriz, hamar lagunetik ia zortzik (%77,4) nagusiki gaztelania erabiltzen dute. Hala ere, aipatzekoa da %11,8ak nagusiki euskara erabiltzea.


Etxeko erabileraren tipologia 1996
Laukiz, Maruri-Jatabe
Tipología de lengua de uso en casa 1996



Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera

Biztanleriaren erdia (%51,71), euskaldunen dentsitatea %80tik gora duten etxeetan bizi da. Hauek, nagusiki euskaraz hitz egiten dute etxean (%81,22). Dentsitateak behera egin ahala, euskararen erabilera ere behera egiten du. Dentsitatea %60-80 tartekoa duten etxeetan Udal Elkarteko biztanleen hamarren bat bizi da (%9,64). Gehienak gaztelaniaz hitz egiten dute (%39,01), nahiz eta euskararen erabilera ere garrantzitsua izan (%32,62). Euskaldunen dentsitatea %60tik jaisten denean (biztanleen %38,65) gaztelania erabiltzen dute nagusiki etxean eta euskararen erabilera txikia da.

Etxeko erabilera 1996, familiako euskaldunen dentsitatearen arabera
Laukiz, Maruri-Jatabe
Lengua de uso en casa 1996, según la densidad de euskaldunes en la familia



IRAKASKUNTZA

Laukiz eta Maruri-Jatabe udalerrietan ikastetxe bakarra dago; Laukizko Lauaxeta LHI. Sare publikoan dago eta D ereduak bakarra da.

HERRIA	IKASTETXEA	SAREA	IKASLEAK	A	B	D
LAUKIZ	CEP LAUKIZKO LAUAXETA LHI	PUBLIKOA	29	0	0	%100
PUBLIKOA GUZTIRA			29	0	0	%100
Laukiz eta Maruri-Jatabe GUZTIRA			29	0	0	%100


Hizkuntza Normalkuntzako programak

Ez dago ikastetxerik Hizkuntza Normalkuntzako Programarik abian duenik.

Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera (1983-84/2001-02)

Hezkuntzan hizkuntza-ereduak ezarri zirenean A, B eta D ereduak zeuden. D eredu erabiliena zen (%59,42) eta etengabe gora eginez joan ondoren, erabat nagusitu da. Gauzak honela, D eredu eredu bakarra da 1986-87 ikasturtetik aurrera.


Gaur egun, Laukizen soilik ematen dira eskolak, baina hizkuntza ereduak ezarri zirenean Maruri-Jataben ere klaseak ematen ziren. Maruri-Jataben 1983-84 eta 1984-85 ikasturteetan A ereduaren gainetik D eredu nagusi zen. 1985-86 ikasturtean A, B eta D ereduak ezarri ziren baina 1986-87 ikasturtean D eredu matrikulatu ziren ikasle denak. Ikasturte hau izan zen Maruri-Jatabeko azkena. Laukizen, 1983-84 ikasturtean B eta D ereduak ezarri ziren (D eredu %57k aukeratu zuten). Baina hurrengo ikasturtetik aurrera ikasle denak D eredu matrikulatu dira.



Haur Hezkuntzaren bilakaera (1983-84/2001-02)


Hezkuntzan hizkuntza-ereduak ezarri zirenetik D eredu nagusi izan da Haur Hezkuntzan. 1986-87 ikasturtetik aurrera D eredu bakarra da.

Gaur egun, Laukizen soilik ematen da Haur Hezkuntza. Maruri-Jataben 1986-87tik ez dago Haur Hezkuntzarik.



Irakaskuntza ez unibertsitaria 2001-02, irakasmailaren arabera

Aurretik esan bezala, Laukizen dago ikastetxe bakarra. Bertan, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan D eredia bakarra da.



EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

HABEk emandako informazioaren arabera Laukiz eta Maruri-Jataben ez dago euskaltegirik.

EUSKARAREN ERABILERA

ADMINISTRAZIOA

Udalbatzen osaera: alderdi politikoek ordezkaritza

Laukiz eta Maruri-Jatabe udalerrietako udalbatzen osaera honakoa da:

HERRIA	ALKATEA	ZINEGOTZIAK		
		EAJ-PNV- EA	LH*	PP
Laukiz	Jose Antonio Llona (EAJ-PNV-EA)	7	1	1
Maruri-Jatabe	Joseba Koldo Alzaga (EAJ-PNV)	6	0	1
Guztira		13	1	2

LH: Lau haizetara

Euskara Zerbitzua

Laukiz eta Maruri-Jatabe udalerriek 2003ko otsailetik aurrera badute Euskara Zerbitzuan Euskara eta Kultura teknikari bera. (%50 leku bakoitzean). Euskara Zerbitzua 1998ko irailean sortu zen leku bietan eta otsailera arte astean behin baino ez zegoen.

Udalen erabilera-plana

Erabilera-Plana onartuta dute Udal Elkarte honetako bi herriek.

Derrigortasun indizea eta hizkuntza-eskakizunen betetze-maila

Laukizko Udalari dagokion derrigortasun-indizea %64 da. Udalak lanpostuen %58,33ri jarri die derrigortasuna. Derrigortasun-data duten langileen %71,43k egiaztatu dute hizkuntza-eskakizuna.

Maruri-Jatabeko Udalari dagokion derrigortasun-indizea, berriz, %82,66 da. Udalak lanpostuen %80ri jarri die derrigortasuna. Derrigortasun-data duten lau langileetatik hiruk (%75) egiaztatu dute hizkuntza-eskakizuna.


Herria	Indizea %	Lanpostuak	Derrigortasunak		Egiaztatuak		Ez egiaztatuak		Lanpostu hutsak		Adinagatik salbuetsita		-1		-2		-3	
			K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Laukiz	64	12	7	58,33	5	71,43	1	14,29	1	14,29	0	0	0	0	0	0	0	0
Maruri-Jatabe	82,66	5	4	80,00	3	75,00	0	0	1	25,00	0	0	0	0	0	0	0	0
Udal Elkarteak		17	11	64,71	8	72,73	1	9,09	2	18,18	0	0	0	0	0	0	0	0

Laukiz**12 lanpostu****Hutsik: 1****Ez egiaztatuta : 1****Maruri-Jatabe****6 lanpostu****Hutsik 1 (Orain lanpostua betetzen duenak badu 2 H.E.****GUZTIOK dute egiaztatuta dagokien H.E.**


INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK

Udalaren web gune ofizialaren hizkuntza-egoera

Laukizko Udaleko web ofiziala www.laukiz.net da. Hasierako orria euskaraz dago eta gaztelaniazko bertsioa aukeratu daiteke. Euskarazko bertsioiko atal guztiak euskaraz landuta daude.



Maruri-Jatabeko Udalaren web ofizialeko (www.maruri-jatabe.net) sarrerako orria euskaraz dago eta gaztelaniazko bertsioa aukeratu daiteke. Euskarazko bertsioiko atal guztiak euskaraz landuta daude.



LAN MUNDUA

Biztanleria, lan-sektorearen arabera (1996)

Langile gehienek zerbitzuetan dihardute (%62,04). Lau lagunetik batek (%26,01) industrian egiten du lan. Nekazaritza eta eraikuntza dihardutenak %7,91 eta %4,04 dira, hurrenez hurren.

Bi udalerrri hauetan, nekazaritza dihardutenen portzentajeak garrantzitsuak dira, EAEkoarekin (%2,47), Bizkaikoarekin (%2,04) eta Plentzia-Mungia eskualdekoarekin (%4,09) alderatuz gero.

	Guztira	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	689.100	%2,47	%31,84	%6,99	%58,70
Bizkaia	353.792	%2,04	%29,35	%7,15	%61,45
Plentzia-Mungia	14.109	%4,09	%28,39	%5,8	%61,72
Laukiz	353	%5,95	%25,21	%3,12	%65,72
Maruri-Jatabe	216	%11,11	%27,31	%5,56	%56,02
Udal Elkarteak	569	%7,91	%26,01	%4,04	%62,04

Erabilera-plana duten udaletako enpresak

Ez dago enpresarik erabilera-plana martxan duenik.

EUSKARAREN ELIKADURA

KOMUNIKABIDEAK

Euskara hutsez egindako **EUTSI** hiruhilabetekaria argitaratzen dute Udal Elkartean (2003ko uztailetik aurrera ERDU PRESSen ordeztu). 8 orrialdeko 800 ale argitaratzen dituzte eta doan banatzen da aipatutako aldizkaria.

EUSKARA-AURREKONTUAK (2003ko datuak)

LAUKIZ	AURREKONTU OSOA	EUSKARA ZERBITZUA	MARURI-JATABE	AURREKONTU OSOA	EUSKARA ZERBITZUA
2003ko ekitaldia	1.044.774,09 €	29.571,23 €	2003ko ekitaldia	689.909,22€	45.378,52 €

ONDORIOAK: indarguneak eta ahuleziak

INDARGUNEAK

- ❑ Udal Elkarteko ia bi heren (%63,47) euskaldunak dira.
- ❑ Biztanleriaren erdia euskaldun zaharrak dira (%52,39); hau da, etxean jaso dute euskara eta gorde egin dute.
- ❑ Irakaskuntza: Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, D ereduak bakarrik da.
- ❑ **Udalaren erabilera plana onartua dute.**
- ❑ Komunikabideak: **EUTSI** euskara hutsez idatzitako hiruhilabetekaria banatzen da Udal Elkartearen.

AHULEZIAK

- ❑ 1981etik 1996ra euskaldunen portzentajea ez da igo (Maruri-Jataben 9 puntu jaitsi da).
- ❑ Lau pertsonatik bat (%24,83) erdaldun zaharra da.
- ❑ Euskaldunen dentsitatea %60tik beherakoa denean (%38,65) ez da ia euskararik erabiltzen etxean.

ONDORIO NAGUSIAK

Udal Elkarteak osatzen duten udalerriak bi dira: Laukiz eta Maruri-Jatabe. 1996ko datuen arabera, Udal Elkarte honetan **1.790** lagun bizi dira. Laukiz da biztanle gehien dituen udalerria (1.000). Maruri-Jatabek, berriz, 790 biztanle ditu.


Azken urteotako (1981-1996) bilakaerari dagokionez, Udal Elkarteak biztanleen %2,4 galdu ditu. Galera hau Laukizen bakarrik gertatu da, herri honek biztanleen %10,8 galdu baitu. Maruri-Jatabe, berriz, hazi egin da (%15,1).

1996ko datuen arabera, Udal Elkartean hiru lagunetik bi (%63,5) euskaldunak dira. Elebidun hartzaileak %11,2 dira eta erdaldun elebakarrak %25,3.

Udal Elkarteak osatzen duten udalerrien artean, euskaldunen portzentajeari dagokionez desberdintasunak daude. Maruri-Jatabe euskaldunagoa da Laukiz baino.

Hizkuntza-gaitasuna, udalerriaren arabera (Plentzia-Mungia)

Competencia lingüística por municipios (Plentzia-Mungia)



Bilakaerari dagokionez, 1981etik 1996ra euskaldunen portzentajeak ez du aldaketarik izan orokorrean. Hala ere herriak aztertzen badugu, Laukizen 3 puntuko igoera egon den bitartean, Maruri-Jataben 9 puntu jaitsi da. Jaitsiera hau barne-migrazioaz lotuta egon daiteke, izan ere Udal Elkarteko biztanleen %55,24 barne-migratzailea da. Ingurune erdaldunago batetik etorritako biztanle berriek berezko garrantzia izan dezakete euskaldunen portzentajearen jaitsieran.

Laukizen eta Maruri-Jataben, eguneroko bizimoduan eta gizarteko zerbitzuetan euskaraz egiteko aukerak ziurtatu beharko litzaizkieke adin guztietako herritarrei. Ondoren, helburu estrategikoari jarraituz, esparruz esparru, udaletan EBPN garatzeko aurreikusitako helburuak eta neurriak aurreratuko ditugu.

Euskararen ondorengoetaraztea

Udal Elkarteko gehienak euskaldunak izanik (%63,47), euskaldun zaharrak nagusi dira (%52,39). Euskaldunen artean hamarretik zortzi euskaldun zaharrak dira eta bat euskaldun berria da. Hala ere, gazteen artean, euskaldun berrien portzentajeak gora egiten du nabarmen. Beraz, oraindik euskaldun gehienek euskara etxean jaso badute ere, gero eta gehiago dira giro erdaldunean hazi eta euskara eskolan jaso duten euskaldun gazteak, euskaldun berri gazteak, hain zuzen. Euskaldun berriak izanik, euskaraz jarduteko gaitasun osoa izan arren, etxeko giroa erdalduna dute. Hortaz, aukera gutxi dute etxean euskaraz mintzatzeko.

Familiako guztiak edo ia guztiak (%80tik gora) euskaldunak direnean baino ez dute Legazpiko biztanleek nagusiki (%81,22) euskara erabiltzen etxean. Familiako euskaldunen dentsitatea txikiagoa denean, euskararen erabilera nabarmen egiten du behera. Biztanleen erdia (%51,71), etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik gora duten familietan bizi da eta gainontzeko erdia etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik behera duten familietan bizi dira. Jakin badakigu ingurune soziolinguistikoak asko eragiten duela etxeko erabilera. Hona hemen familiaren geroratzearen inguruko esparruan proposatutako ekintza batzuk:

- ❑ Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko.
- ❑ Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haurtzaindegia edo haur-eskolak eskaini.
- ❑ Familia osatu berria duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak.
- ❑ Euskaraz dakiten haur zaintzaileen zerrenda osatu eta gurasoen eskura ipini.

Irakaskuntzari dagokionez, gure datuen arabera eskola bakarra dago Udal Elkartean. Ikasleen gehiengoa, beraz, inguruko herri handiagoren batetara joango da ikastera. Aztertu beharrekoa litzateke zein ikastetxetara doazen Udal Elkarteko ikasleak eta zeintzuk diren ikastetxe hauetan erabiltzen dituzten hizkuntza-ereduak.

Euskaldun-kopuruaren gorakadan, hezkuntzak duen garrantziaz oharturik, eta ikasmaita guztietan D ereduaren nagusitasuna ikusirik, ona litzateke ikastetxeetan euskara ohiko hizkuntza-harremana izan dadin, neurriak sendotzea. Ikastetxeen errotulazioa era egokian jartzeko laguntza eskaini dezake Udalak. Baita ere, irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri eman eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini dezake Udalak. Proposatzen ditugun beste ekintza batzuk:

- ❑ Eskola barruko eta kanpoko komunikazioan (inprimakiak, bilera aktak, zirkularra,...) euskara erabiltzeko laguntzak eskaini.
- ❑ Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak martxan jartzeko eta daudenetan garatzeko laguntzak eskaini.
- ❑ Eusko Jaurilaritzak, foru-aldundiak eta bestelako erakundeek (Europako Batzordeak, Europako Kontseiluak,...) hizkuntzak sustatzeko kudeatzen dituzten programen eta dirulaguntzen berri eman.
- ❑ Ahozko adierazmena indartzeko ekintzak burutzeko laguntza ematea.

Euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez, gure datuen arabera ez dago euskaltegirik bi herri hauetan. Beraz, komenigarria litzateke euskaltegi baten beharra dagoen aztertzea edo inguruko herrietan dauden euskaltegiekin lan egitea.

Euskalduntze-alfabetatzean eragiteko proposatzen diren zenbait ekintza:

- ❑ Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu
- ❑ Euskaltegiekin batera ekintzak jarri abian, ikasleei euskara sendotzeko: topaguneak, jardunaldiak, udarako barnetegia, murgiltze ekintzak...

- ❑ Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea
- ❑ Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua
- ❑ Alfabetatze ikastaroak indartu eta jarduera esparruka identifikatutako taldeei eskaini
- ❑ Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzen motibatzea

Euskararen erabilera

Udal Elkartean, euskara erabiltzeko esparruak eratzearen beharra ageri da, eta ona litzateke Udalaren gidaritzapean, Euskara Batzordearen bitartez, aisia, kirola, katekesia eta kulturgintza esparruetan euskararen presentzia bermatzea eta besterik gabe euskara erabiltzeko aukerak eskaintzea. Ekintza horiek dibertsifikatu beharko lirateke, adin-tarte ezberdinetako euskaldunengana iristeko.

Aisialdia eta kirola direla eta, horretan diharduten taldeen eta elkarteen jarduerak koordinatzeko modua egin dezakete Udalek. Euskarazko ekintzen aldirokotasuna bermatzeaz gain, esparru horietan adin-tarte eta interes ezberdinei erantzuteko ahalegina egin dezake, eta Udalen menpeko aisialdi eta kultur guneetan euskarazko saioak eskaini. Esparru horietan denetan haur eta gazteentzako eskaintzari erreparatu beharko litzaioke, bereziki. Besteak beste, haientzako dauden euskarazko produktuen eta zerbitzuen gaineko informazioa helarazi daiteke, eta horretarako, egun eskueran dauden jokoan, liburuen, komikien, bideoen edota teknologia berrietan oinarritutako produktuen katalogoa osa daiteke. Horrela, euskarazko produktuen eta zerbitzuen kontsumoa areagotuko litzateke. Ekintza hauetaz gain, beste ekintza batzuk ere proposatzen ditugu aisia eta kirol esparruetan euskara indartzeko:

- Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu
- Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu
- Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatu
- Euskaraz dakiten aisialdirako begiraleen lan poltsa osatu
- Aisialdiko elkarteen barne funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzea lagundu
- Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza-irizpideak ezarri
- Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea
- Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egin

Teknologia berriak ezin albo batera utzi, eta komenigarria da esparru hori gogoan izatea. Udal Elkarteko elkarte ezberdinek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza eskaini dezake Udal Elkarteak. Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini ditzakete Udalek eta euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean, batez ere, gazteen artean, beraiek baitira, produktu horien erabiltzailerik sutsuenak.

Administrazioaren barruko jardunari begira, Udal Elkarteak osatzen duten Udalek onartuta dute Euskara Plana.

Udal Elkarteko udal-langile guztietatik %64,71k derrigortasuna ezarrita dute. Derrigortasuna ezarrita dituzten %72,73k lortu dute dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea. Hizkuntza-eskakizunen betetze-maila areagotze aldera segitu behar dute Udalek. Administrazioari dagokionez ondoko ekintzak eraman daitezke aurrera:

- Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana garatu.
- Euskara Zerbitzuaren betebeharren arabera normalizatzailearen beharrak definitu, HPSrekin batera.
- Euskara Batzordea osatzea, herriko ikastetxe, euskaltegi eta elkarterekin batera.
- Euskara Zerbitzua sendotu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean.

Enpresa munduari dagokionez, Udal Elkarteko erdiak baino gehiagok (%62,04) zerbitzuetan egiten du lan eta lau lagunetik batek (%26,01) industrian dihardu. Nekazaritzan aritzen direnak %11,11 dira eta eraikuntzan dihardutenak azkenik, %4,04. Enpresa munduan proposatzen ditun zenbait ekintza:

- Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini
- Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutarazi eta eskaera egiteko laguntza eskaini
- Arloko elkarteekin harremanetan jarri eta euskararen inguruko proposamen orokor bat egin

- ❑ Lehen hitza euskaraz izan dadin lagundu
- ❑ Sektoretako arduradunei (dendariei, tabernariei,...) euskara erabiltzearen abantailak ikustarazi
- ❑ Eraginkorrek diren establezimenduak identifikatu eta mikroplangintzak egin
- ❑ Eusko Jaurlaritzak edota Foru Aldundiak enpresetan euskararen erabilera areagotzeko programetan parte hartzen duten enpresei laguntza teknikoa edo diruzkoa eman, ezarrita dauden irizpideekin bat etorriz
- ❑ Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri

Euskararen elikadura

Euskara hutsez egindako **EUTSI** hiruhilabetekaria argitaratzen dute Udal Elkartean. 8 orrialdeko 800 ale argitaratzen dituzte eta doan banatzen da aipatutako aldizkaria.

- ❑ Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzea.
 - ❑ Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.
 - ❑ Udalak herri edo eskualde mailako komunikabideetan tokian tokiko euskalkiaren erabilera bultzatzea
- Kulturgintzaren arloan, bestalde, kultur ekintzak antola daitezke orain arte bezala, euskarazko kultur ekoizpenak herritarrengana iritsi daitezzen aldiro-aldiro. Hauek dira proposatzen ditugun zenbait ekintza:
- ❑ Udalaren menpeko kultur guneetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea.
 - ❑ Inguruko herriekin eskualdeko kultur zirkuituak antolatu.
 - ❑ Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu.
 - ❑ Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jarri.
 - ❑ Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea.
 - ❑ Euskarazko kultur plangintza diseinatu, aldizkakotasuna bermatzeari begira.

Beharrezkoa litzateke, azkenik, corpus plangintza alorrean, merkatal-guneetako hizkuntza-paisaian (denda, taberna, akademiak eta abarrekotan) euskararen presentzia txukuntzea eta areagotzea. Baita ere, toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia, Euskaltzaindiarekin bat etorriz, normalizatzea. Azkenik, hizkuntza ondarea gordetzeko eta zabaltzeko ekintzetarako laguntza eskaini dezake Udalak.

EUSKARAREN AURREKONTUA

Ona litzateke Udalek euskararen sustapenerako bideratzen duten aurrekontua aztertzea, erakundeetan euskara biziberritzeko nahikoa duten edo gehitu beharko litzatekeen erabakitzeke. Ikustekoa da, halaber, euskara-aurrekontuek diagnosiak agerrarazten dituen beharrei ia behar bezala erantzuten dieten, eta aurrekontuen hazkundera izanez gero, zein helburutarako erabil daitezkeen kopuru gehigarri horiek.

GIZA BALIABIDEAK

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko udaletako, mankomunitateetako, koadriletako eta udal elkarteetako Euskara Zerbitzuak aztertu dituen ikerlana egin zuen. Lan horretan udaletako euskara zerbitzuei buruzko diagnosis egin da, eta emaitzen arabera, zerbitzuen funtzioak eta gutxieneko tamaina finkatzeko proposamena egin da. Dena den, udal bakoitzak EBPN-n jasotako helburuek eta proposatutako egitasmoek emango dute dimentsionamenduaren eta funtzioen gaineko informazio zehatza.

Aipatutako azterketaren arabera, Udal Elkartean euskararen normalizazioan bi langile aritu beharko lirateke, gutxienez: hizkuntza normalkuntzarako teknikari bat eta itzultzaile bat.

GLOSARIOA: erabilitako aldagaien eta kontzeptuen definizioa

HIZKUNTZA-GAITASUNA (HPS)²

Hizkuntza (euskara) zenbateraino menperatzen den ezagutzeko, oinarriko hizkuntz trebetasunak (ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi) gurutzatzen dituen tipologia.

Euskaldunak

Gutxienez euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten dutenak.

Elebidun hartzaileak

Euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egin ez arren, “ondo” ulertu edo irakurtzen dutenak.

Erdaldun elebakarrak

Euskaraz batere ez ulertu eta hitz egiten ez duten pertsonak.

ETXEKO HIZKUNTZA

Etxean maizen hitz egiten den hizkuntza.

³ Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak finkatutako sailkapena

HIZKUNTZA-BILAKAERAREN TIPOLOGIA

Biztanleriaren hizkuntza-bilakaera zer-nolakoa izan den aztertzeko ama-hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren gurutzapenean oinarritutako tipologia (HPS). Gurutzapen horretatik eratorritako kategoriak 15 badira ere, azterketa egiteko 7tan bildu dira.

Euskaldun zaharrak

Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

Jatorrizko elebidunak

Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

Partzialki erdaldunduak

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egiten ez badute, “ondo” ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

Gutziz erdaldunduak

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz ez hitz egin, eta “ondo” ez ulertu eta ez irakurri egiten duten pertsonak.

Euskaldun berriak

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak

Partzialki euskaldun berriak

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egiten ez badute, “ondo” ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

Erdaldun zaharrak

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ez hitz egin, ez “ondo” ulertu eta ez irakurri egiten duten pertsonak